

**JOAN SCOTTEN GENERO-
KATEGORIAK
HISTORIOGRAFIAN IZANDAKO
ERAGINA BIRPENTSATUZ**

Egilea: Amaia Retolaza Benito

Historiako Gradua, 2019-2020 Ikasturtea

Zuzendaria: Miren Llona González

EHUko Historia Garaikidea Saila

LABURPENA

Bigarren olatu feministaren eragina dela eta, 60ko hamarkadatik aurrera, 70 eta 80ko hamarkadetan bereziki, feminismoaren teorialariek generoa izan zuten aztergai; eta analisirako kategoria erabilgarri gisa ulertzen hasi ziren gainera.

Testuinguru horretan, Joan Wallach Scott historialari estatu batuarrak *genero* kategoriaren eta garai hartan gauzaturiko giro linguistikoaren harira nazioarteko historiografian erreferente bihurtu zen ekarpen izugarria egin zuen. Genero kategoria definitu eta Emakumeen Historiaren aurrean Genero Historiaren alde egindako ekarpen ikaragarriaz gain, ordura arte historian premisatzat erabili izan diren kontzeptuak, a-historikotzat hartuak izan diren horiek historizatzearen beharra azpimarratu zuen, izan ere, bere ustez, gizarte-talde zapalduak historiaren erdigunean kokatuko dituen historia berri bat eraikitzeko lehenengo pausua aurrez genekiena deseraikitzea baita. Hori guztia gutxi balitz, garaiko historiaren oinarriak zalantzan jarri eta marxismo ortodoxoa kritikatu zituen, emakumeak subjeto historiko bihurtuz.

Scotten ekarpenak eztabaida ugari eragin zituen, bai feminismoaren, bai ezkerren eta baita Historiako disziplina osoaren barnean ere. Asko izan dira Scotten proposamena begi honez hartu dutenak; baina planteamendu kritiko eta berritzaile ororekin gertatu ohi den bezala, haren inguruan sorturiko erresistentziak ere ugariak izan ziren.

2011n, aurrez eginiko ekarpen horren berrikuspena egin zuen, hainbat urteren ostean generoak analisirako kategoria erabilgarria izaten jarraitzen ote zuen ala ez zalantzan jarritz. Berrikuspen hura, feminismoari auto-kritika garrantzitsua izan zen. Bertan, feministek historialarien akats berbera errepikatu dutela azpimarratu zuen, (nahikoa) ez historizatzea. Hasierako galderari erantzunez, esan daiteke generoak analisirako kategoria egokia izaten jarraitzen duen ala ez, ez dela hitzaren beraren araberakoa, ematen zaion erabileraren kritikotasunarena baizik.

Scotten ekarpenaren garrantzia ikusita, ez da harritzekoa herrialde ezberdinetako mugimendu feministetan izan duen eragin politikoa. Eragin hori oso ezberdina izan da

herrialdearen ezaugarrien eta bertako mentalitatearen arabera, jakina. Espainiako testuinguru atzerakoia ezaguturik esaterako, esan daiteke Scotten ideiak berandu, partzialki, eta oso era desberdin batean iritsi zirela Espainiako historiografia feministara.

Amaitzeko, esan beharra dago bere ekarpenak historiografian izan duen garrantzia ukaezina den arren, Scottek ez duela nik nahi adinako arrakasta lortu emakumea historiaren erdigunera eramateko ahaleginean, eta beraz, bere eragina erlatiboa izan dela nolabait.

Hitz gakoak: Scott, emakume, genero, giro linguistiko, feminismo.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. TESTUINGURUA.....	2
3. SCOTTEN EKARPENA.....	6
4. BERRIKUSPENA.....	12
5. ESPAINIAN IZANDAKO ERAGINA.....	15
6. ONDORIOAK.....	18
7. BIBLIOGRAFIA.....	22

SARRERA

Bigarren olatu feministaren eragina dela eta, 60ko hamarkadatik aurrera, 70 eta 80ko hamarkadetan bereziki, feminismoaren teoriariek generoa izan zuten aztergai, sexuen arteko harremanak zehazten dituzten faktoreei buruz hausnartzeko bitarteko gisa; lan teoriko ikaragarria egin zutelarik termino horren inguruan.

Geroago azalduko dudan moduan, hamarkada horietan zehar, generoa analisirako kategoria erabilgarri gisa ulertzen hasi ziren, hori baitzen 1970eko hamarkadan emakumeen historia idaztea helburu zutenentzat bide egokiena emakumeak marjinetatik historiaren erdigunera eramateko; prozesu horretan, historia bera idazteko modua eraldatuz.

Generoaren feministen aburuz, oso garrantzitsua zen biologia eta kultura bereiztea. Horretarako, ezinbestekoa zen naturalizat jotzen zen guztia, emakume edo gizona izatea, feminitatea eta maskulinitasuna, amatasuna eta aitatasuna, heterosexualitatea, familia... zalantzan jartzea. Beraien ustez, kontzeptu nahiz rol horiek kulturalki sortuak izan ziren, gizonak emakumeak zapaltzeko helburuarekin; eta eraikiak ziren neurrian alda zitezkeela zioten. Hala ere, badira bestela pentsatzen zutenak ere. Eta horrela, ugariak izan dira generoaren definizio biologiko hutsean tematzen zirenen eta "gizonen eta emakumeen rola gizarte-erakuntza gisa" definitzen zituztenen arteko desadostasun eta eztabaidak, gaur egun arte iraun dutelarik.

Generoak, hain erlatibizatuta dagoen kontzeptuak, sexu-desberdintasunari buruzko ezagutza historiko jakin batek, emakumei nahiz sexu-desberdintasunari buruzko ezagutza berriak sortu eta aldi berean historiaren edo beste edozein diziplinaren politikei modu kritikoan aurre egin diezaiekeen tresna analitiko bat sortzeko aukera ematen die feministei. Hori horrela, esan daiteke historia feminista iraganaren erregistro osatu gabea zuzentzeko edo ordeztzeko saiakera ez ezik, historiak generoari buruzko ezagutza

sortzeko espazio gisa duen modua kritikoki ulertzeko baliabide ere bihurtzen dela (Scott, 2008).

Generoaren feminismoaz hitz egitean, Joan Wallach Scott (Brooklyn, New York, 1941) historialari estatu batuarra, eta emakume hark *genero* kontzeptuaren eta garai hartan gauzaturiko giro linguistikoaren harira egindako ekarpena aipatu behar dira ezinbestean, nazioarteko historiografian izandako eragin ikaragarria dela eta. Giro linguistikoaren testuinguru zehatz horretan Scottek genero kategoriaren inguruan egindako ekarpena eta horrek izandako eragina dira analisi honen erdigune beraz.

Horretarako, Scottek genero kategoriaren inguruan idatziriko bi artikulua hartu ditut oinarritzat, nahiz eta iturri gehiago ere erabili ditudan; lehenengoa, 1986. urtean idatzirikoa, ikaragarri erangikorra izan dena historiografian, eta bigarrena, 2011. urtean egindako autokritika edo berrikuspena. Behin Scotten ideien bilakaera ezagututa, bere ekarpenak maila praktikoa izandako eragina aztertzen ahaleginduko naiz. Eragin hori era orokor batean azaltzea nahiko konplexua da ordea, izan ere, herrialde bakoitzeko ezaugarrien arabera oso ezberdina baita. Hori horrela, Espainiako kasuan zentratuko naiz. Azkenik, lanari amaiera emateko, Scotten ekarpenak historiografian izandako eraginari buruzko ondorio batzuk planteatuko ditut.

TESTUINGURUA

Joan Scotten ekarpena ulertu ahal izateko, 60ko hamarkadako testuingurua ezagutu beharra dago. Bigarren Mundu Gerraren ostean sorturiko mendebaldeko bloke kapitalistaren eta ekialdeko bloke komunistaren arteko gatazka politikoak indarrean jarraitzen zuen, Gerra Hotzeko urterik gogorrenak zirelarik haiek. Gogoratu gainera, ekonomiaren hazkundearen eta aurrerapen zientifiko-teknologiko nabariaren garai hau, mugimendu sozial handikoa izan zela. Horren adibide dira Vietnameko gerraren aurka sorturiko protestak, *Hippie* mugimendua, Pragako udaberria, 68ko Maiatza, Maoren Txinako Iraultza Kulturala, Iraultza Sexuala edo antiinperialismoaren nahiz ideologia iraultzaileen aldeko mugimendu sozialak Hirugarren Munduko herrialdeetan. Garai

honetako mugimendu esanguratsuenetariko bat feminismoaren berpiztea da ziurrenik, bigarren olatu gisa ezagunagoa dena, hamarkada honetako bigarren erdialdean sorturikoa, zeinak emakumeen egoeran ikaragarritzko eragina izan zuen.

50eko hamarkada eta 60ko hamarkadaren hasiera garai zailak izan ziren pentsamendu feminista garatzeko. 60ko hamarkadaren bigarren erditik aurrera ordea, erabat aldatu zen egoera. Mugimendu feministaren loraldiarekin batera, emakumeen esperientzia garrantzia hartzen hasi zen, ordura arte ez bezala, genero-zapalkuntza emakume askoren kezken erdigune bihurtu zelarik, eta hura ikustarazteko beharra sortu zen nolabait. Gainera, ordura arte gizonen eta gizonentzat egindako historia haren oinarriak zalantzan jartzen hasi ziren garaiko emakume batzuk (Llona, 2016, 157).

Emakumeak ez ezik, bestelako talde sozial ezberdinak ere izan dira baztertuak historia ofizialetik. Historia garaileek idazten dutenez, ez da harrizkeoa boteredunen tresna bihurtu den diskurtso historiko eurozentrista heteropatriarkalean zapalduak lekurik ez izatea. Askok dira gutxiengo etniko, arrazako edo erlijioso bat osatzen duten gizarte-taldeak. Askotan alderatu ohi ditugun arren, ez da egokia emakumeen zapalkuntza gutxiengo horienarekin alderatzea, izan ere, emakumeek populazioaren gehiengoa osatzen baitute. Baina hala eta guztiz ere, boteretik urrundutako eta zapalduetako talde bat izaten jarraitzen du. Dena den, esan daiteke ikerketa historikotik baztertutako talde horiei buruzko hausnarketek ikerketa-ildo berriak eta balio handiko planteamenduak eskaini dituztela emakumearen historiari begira (Nash, 1984, 18; 32).

Esan bezala, bide eman zen historia ofiziala deritzona zalantzan jarri eta bertatik aldentzen hasi ziren ideia nahiz korrante berriak sortzeko. Horren adibide adierazgarria da feminismoak jarraituriko bidea. Garaiko feminismoaren testuingurua eta feminista ezberdinen hausnarketa nahiz ekarpenak ulertzeko ordea, feminismoak ezker berriarekin zuen harremana azaltzea beharrezkoa dela uste dut, izan ere, kontuan izan behar dugu garai hartan, oraindik, “emakumearen”, sujetu politiko gisa, zapalkuntzarekiko kontzientzia garatu gabe zegoela neurri handi batean, baita teorian hain aurrerakoiak ziren ezkertiar askoren artean ere.

Garai hartan, marxismotik edaten zuten feministak ugaritzen hasi ziren. Hala ere, emakume haiek garbi ikusten zuten langile-klaseko kide gisa jasaten zuten zapalkuntzaz gain, emakume izate hutsagatik ere zapalduak zirela. Arazoaren muina ulertzeko ordea, jakin beharra dago ezkerrek, eskuinak bezala, ez zituela emakumeak subjektu politiko bereizi gisa hartzen. Ezkerreko doktrina ofizialarentzat, langile-klasea zen iraultzaren indar eragile, eta beraz subjektu politiko. Gainera, interpretazio marxista klasikoak emakumeen zapalkuntzaren amaiera kapitalismoaren indargabetzearekin eta produkzio-bideen jabetza pribatuaren abolizioarekin lotzen du (Nash, 1984, 13). Jarrera horrek garbi erakusten du emakumeen auzia ezkerrearen borroka iraultzailean bigarren plano batean kokatzen zela, ezkerrearen agenda politikotik at ez esatearren. Horren adibide dira geroago aipatuko dudak 1963. urtean E.P. Thompson historialari marxista britaniarrak idatziriko *The Making of the English Working Class* liburua edo Simone de Beauvoirrek idatziriko *Bigarren Sexua* lanari ezkerrek eta marxismo militanteak eginiko harrera (Beauvoir, 1982, 230-232); (Llona, 2016, 162). Feminista marxistek aldiz, patriarkatua eta kapitalismoa elkarreaginean dauden sistema bereziak direla uste dute, eta beraz, kapitalismoaren suntsipenak ez duela zertan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ekarri (Scott, 1990, 33).

Garbi dago beraz, feministen eta ezkerrearen arteko harremana kolokan zegoela, eta feministek aldaketak eskatzen zituztela. Juliet Mitchellek esaterako garbi zioen: “sozialismoak politika iraultzaile gisa zuen posizioa berriro irabazi nahi bazuen, emakumearen aurka egindako bekatuak konpondu beharko zituen; hala nola, emakumearentzat leku egokirik ez izatea bere teoriaren barruan” (Mitchell, 1977, 94). Jarrera horrek, teoria marxista klasikoko subjektu iraultzailea zalantzan jartzeaz gain, ezkerreko ekintzaile asko mugimendu feministara batzea eragin zuen (Llona, 2016, 157).

Juliet Mitchell bezala, asko izan ziren metodologia marxista tradizionala kritikatu zuten feminista neomarxistak, gizarte-klasearen kategoriak genero-kategoriarekin osatu behar zirela esaten zutenak. Hala ere, azpimarratu beharra dago emakumearen analisi historikoak baduela beste zailtasun bat: talde interklasista bat osatzen duten neurrian,

emakume guztiak kategoria bakar batean biltzea ez dela lan erraza inondik inora ere. Beraz, emakume kategoriaren barnean ere, azpi-mailaketa bat aurki daiteke, klase altuko emakumeen eta langile klasekoen artean bereizketa nabarmen bat dagoelarik (Nash, 1984, 33). Denborarekin ordea, konpromezu feministak subjektu berri eta bateratu bat sortzea lortu zuen, “emakumeak” barnebiltzen zituena (Llona, 2016, 158).

Egia da historiografia akademiko tradizionalak ere emakumezko figura handi eta berezi batzuk aztertu zituela, baina eliteko kide haiek ez ziren bere garaiko emakumeen esperientzia kolektiboaren ordezkari egokia, ehuneko oso txiki bat osatzen baitzuten. Horren aurrean, bigarren olatuko feministek lanketa izugarria egin zuten; ordura arte eraikitako historia partziala zela erakutsi eta aintzat hartzen ez zen giza populazioaren erdiaren esperientzia kolektiboari ahotsa emanez; edo horretan ahalegindu ziren behintzat (Nash, 1984, 22).

Kezka berriak zituen ikerlari-belaunaldi bat proposamen nahiz galdera berriak mahaigaineratuz joan zen, gainera. 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera esaterako, generoa errealitatea hautemateko eta aztertzeo oinarritzko kategoria gisa ulertzen hasi ziren, kategoria berri horrek agerian uzten zuelarik sexu bakoitzari esleitutako ezaugarriak, rola eta bien arteko harremanak ez zirela naturalak, eraikuntza sozio-kulturalak zirela baizik (Llona, 2016, 167).

Planteamendu berriek erronka berriak ekarri zituzten maila teoriko nahiz metodologikoan. Horrela joan zen sortzen Emakumeen Historia berria deiturikoa, prozesu historikoan emakumeen ekintza berreskuratzea bilatzen zuten planteamendu historiografiko berria. Garapen horretan, ezin ditugu aipatu gabe utzi aitzindari kontsidera daitezkeen Gerda Lerner, Natalie Zemon Davies, Renate Bridenthal, Mary Nash, Carrol Smith Rosenberg, Louise Tilly, Theresa McBride edo Joan Scott beraren ekarpen izugarria (Llona, 2016, 158; 165).

Aipatu berri ditudan zenbait feministaren aburuz ordea, Emakumeen Historia sortzea ez zen nahikoa. Emakumeak kontuan hartzen dituen Historia bat idazteko ez zen nahikoa ahanzturan geraturiko datu multzo bat hartu eta kategoria historiko tradizionalei

eranstea, ustezko “behin betiko historiari” ekarpen marjinal huts bat egitea (Tudela, 2013, 4). Emakumeen historia eraikitzea ez da ikuspegi nahiz balio maskulino batzuen pean eraikitako historian emakumea txertatzea, historialariei Historia Generoaren ikuspegitik eraikitzeko tresnak eskaintzea baizik; horrek ordura arte historia eraikitzeko erabilitako ikuspegi eta metodologia errotik eraldatzea bazekarren ere (Nash, 1984, 29); (Veronelli, 2014, 71).

Beraz, emakumeen ikasketak zabaltze horrek gai berriak argitzeaz gain, ordura arteko lan akademikoaren premisak eta arauak zalantzan jarri eta berraztertzea ekarri zuen. Emakumeak historian sartzeak esanahi historikoaren nozio tradizionalak birdefinitu eta zabaltzeaz gain, metodologia aldaketak eragin zituela esan dugu beraz, zeinak aldi berean, emakumeen historia berri bat ez ezik, historia berri bat zekarren teorian (Scott, 1990, 25).

Garbi dago testuinguru berezi hark hausnarketa eta autokritika-prozesu sakon bat gauzatzea ahalbideratu zuela bai feminismoaren eta baita gizarte-historia beraren baitan ere. Horrez gain, marxismo britainiarretik gertuen zeuden tradizioen eragina dela eta, E.P. Thompson, Eric Hobsbawn edo Raymon Williamsena besteak beste, feministak kategoria analitiko “erabilgarriak” teorizatze beharrari erantzuten ahalegindu ziren historia sozialeko kontakizun handietatik kanpo utzi zituzten talde marginatu horien ezberdintasun historikoak azaltzea helburu zutelarik (Burguera, 2006, 184).

SCOTTEN EKARPENA

Esan bezala, errealitatera gehiago gerturatzen den historia baten bilaketa horretan, bada berebiziko garrantzia duen emakume bat, feminismoaren historia, eta zergatik ez, historia eraikitzeko modua bera aldatzeko bidea ireki duena: Joan Scott. Azken bi hamarkadetan nazioarteko historiografian eragin handienetarikoa izan duten testu batzuen idazlea da bera, lan honen oinarri nagusietariko bat den 1986. urtean idatzitako *Generoa: Analisi historikorako kategoria erabilgarria* artikulua idazlea, besteak beste. Historiagile estatubatuar honek, Frantziako historian eta mentalitateen historian

aditua izan arren, beste alor batzuk ere ikertu zituen, ekarpen izugarriak egin zituelarik generoaren historian, emakumeen historian nahiz historia intelektualean, besteak beste. Berak eginiko ekarpena oso zabala izanik, giro linguistikoaren testuinguruan genero kontzeptuari buruz egindako analisisan zentratuko naiz, gaur egungo eztabaida historiografikoetarako erabilgarria dena oso.

Ekarpen teorikoaren konplexutasuna ulertzeko, lagungarria iruditu zait bere filosofia apur bat ezagutzea. Scotten ustez, ezinbestekoa da norberak bere buruari zenbait galdera egitea eta horien erantzuna aurkitzea arazoaren muina ulertu ahal izateko, hala nola, nola azal daitekeen maskulinitatearen eta boterearen arteko harremana, gizonak emakumeen gain duten nagusigoa, edota nola eta zergatik ikasten dituzten haurrek botere-harreman horiek familia nuklearretatik kanpo bizi direnean edo gurasoen erantzukizunak senarraren eta emaztearen artean berdintasunez banatzen diren familietan ere. Bere aburuz, gizartearen sistema sinbolikoak, hau da, gizarteak generoa irudikatzen duen moduak zerikusi zuzena du arazo horretan (Scott, 1990, 38-39).

Gizarteak generoa irudikatzeko duen modu horretatik abiatuta, Scott emakumeen ikusezintasunaren arazoa lantzen hasi zen. Horretarako, bere filosofiari jarraiki, galdera bat egin zion bere buruari: Zergatik (eta noiztik) izan dira ikusezinak emakumeak subjektu historiko gisa, gizakiaren historiako gertaera handi nahiz txikietan parte hartu izan dutela jakina bada? Galdera horren bidez Scottek planteatu nahi izan zuen ikerketaren helburuetako bat historia berri bat argitzea zen. Arazo zaharrak birdefinitu eta ikuspegi berriak eskaini nahi zituen, emakumeak historian behingoz parte-hartzaile aktibo gisa irudikatuz, horretarako itxuraz egonkorra zen iraganeko hizkuntza zalantzan jartzea beharrezkoa bazen ere. Historia berri horrek, aldi berean, egungo estrategia politiko feministan eta etorkizuneko estrategia utopikoan pentsatzeko aukera ugari ematen ditu; izan ere, generoa berriro definitu eta berregituratu behar dela iradokitzen baitu, sexuaz gain, klasea eta arraza ere barne hartzen dituen berdintasun politiko eta sozialaren ikuspegiarekin batera (Scott, 1990, 58).

Aipatu bezala, 80ko hamarkadaren erdialdean, Emakumeen Historia une zail batean aurkitzen zen, ordura arteko ikerketa-lanei forma ematen zien kontzeptu eta metodoek

agortze-sintomak erakusten baitzizuten. Genero-kategoria bera ere berriro ebaluatzeko beharra zegoen, teoria feministan izandako eztabaiden bilakaera eta orokorrean, gizarte-zientziak zeharkatzen ari ziren eztabaida orokorrak, giro linguistikoa eta teoria postestrukturalista frantsesak kontuan hartuta. Genero kontzeptuaren birrebaluazio hori Estatu Batuetako praktika historiografikoaren bilakaerarekin eta gizarte hartako kontzeptuaren erabilera arruntarekin lotzen dute batzuek; baita, termino berrien beharra adierazten zuten zenbait arazo teorikoekin ere (Aresti, 2006, 224-225).

Hori ulertu ahal izateko, kontzeptu ezberdinek herri erabileran duten esanahia ulertzea ezinbestekoa da. Horren adibide da "genero" hitza, "emakume"-ren sinonimotzat hartua izan dena. Azken hamarkadetan ordea, kontzeptu horien erabileran aldaketa kontziente bat gertatu da, eta lehenengo aldiz, bi kontzeptuek sinonimo izateari utzi diote, gaiaren harrera politikoa dela eta, neurri handi batean. Emakumeen Historiari buruzko zenbait liburu eta artikulutan esaterako, "emakume" hitzaren ordez "genero" erabiltzen hasi ziren. Berehala lehertu zen eztabaida feministen artean, kontzeptu bata ala bestea zen egokiagoa. Emakumeen Historia ala Generoaren Historia zen eraiki behar zena? Eztabaida sakona sortu zuen gaia izan zen (Scott, 1990, 28).

Eztabaida horren erdian, Scottek garbi adierazi zuen bere iritzia, zeinak generoaren garrantzia azpimarratu eta Generoaren Historia produkzioaren eta eztabaida historiografikoen erdigunean kokatu zuen. Hori horrela, egoeraren diagnostikoa egin eta garrantzi teoriko nahiz praktiko handia izan zuen proposamen berritzaile oso sinesgarri bat planteatzen jakin zuen hamarkada horretan; horrela, bere genero kategoriaren definizioa benetako mugari bihurtu zelarik ikertzaile belaunaldi oso batentzat (Aresti, 2006, 224-225).

Proposamen horren arabera, genero kategoriak bai sexuari (naturaltzat jotzen denari), eta baita generoari (eraikuntza kultural kontsideratzen denari) lotutako alderdiak barnebiltzen ditu. Horrez gain, bi erlazio-multzoak historizatzearen beharra azpimarratzen du Scottek, sexua eta generoa zentzuz eta esanahiz aldatzen direla erakutsiz espazioaren nahiz garaiaren arabera; azken finean, historia ezagutzeko orain arte a-historikotzat hartu eta beraz zalantzan jarri ez ditugun kategoria horietatik

aldendu beharra dagoela dio (Llona, 2016,168). Scotten aburuz beraz, iraganeko gizarteak aztertu nahi baditugu ezin ditugu gaur egungo premisak (kasu honetan “emakume”, “gizon” eta elkarren arteko harremana) oinarritzat hartu, kontuan izan behar baitugu denborarekin aldatuz joan direla. Ondorioz, iragana ezagutu nahi bada, ordura arteko aurreiritziak alde batera utzi behar dira.

Gainera, Scottek sexu-desberdintasuna beste botere-harreman batzuen osagai bat zela planteatu zuen, eta generoak gaitasuna zuela harreman hierarkikoak esanahiz hornitzeko, gizarte-klaseak, etniak edo erlijioa kasu. Generoari dagokion botere-harreman hori beste zapalkuntza batzuetarako modelo edo arketipo gisa erabili daitekeela dio Scottek, eta beraz, generoak beste botere-harreman batzuk ulertzeko balio duela. Hori azaltzeko arraza ezberdinen arteko erlazioak aipatzen ditu sarritan, izan ere, oso lotuta baitaude genero maskulinoak femeninoa zapaltzeko erabiltzen duen moduarekin. Nerea Arestik nabarmendu zuenez, planteamendu horrek Genero-Historiaren agenda berritzen eta helburu berriak ezartzen lagundu zuen, eta generoak gizarte-harremanak nola eraikitzen dituen ikusteko balio izan zuen gainera; baina aldi berean, ez ahaztu genero-kategoria bera ere eraikuntza bat dela. Hartara, generoaren kategoria bera eta sexu-desberdintasuna aztergai bihurtzen dira, eta beraz, ez dira testuinguru historikoak aztertzeko mekanikoki aplikatu daitezkeen tresna egonkorak, testuinguru bakoitzean esanahi ezberdina izan baitezakete. Beste era batera esanda, generoa kategoria analitiko bat da, oso ezegonkorra dena aldi berean, haren esanahia denboraren eta espazioaren aldagaien mende baitago, izan ere, aurrez aipatu bezala, generoa testuinguru historikoaren arabera definitzen joan den kontzeptu bat baita (Llona, 2016,168).

Bistakoa da Scotten ekarpen horrek aurrera pauso handia eragin zuela, ordura arte a-historiko eta unibertsaltzat harturiko kategoriak, "emakume" kategoria besteak beste, berriro ebaluatu eta zalantzan jarri baitziren. Hala eta guztiz ere, akats larri bat egiten jarraitzen dugu historialariok: oposizio binarioa bera zalantzan ez jartzea eta beraz, ez aztertzea. Sexu-desberdintasunaren terminoen historikotasun eta dekonstrukzio jatorrak lortzeko “oposizio horren kalitate finko eta iraunkorra baztertu beharra dago” Scotten arabera. Bide propioak bilatu behar ditugu, perfektuak ez izan arren, kategoriak

etengabe kritikatzeko; geure analisiak autokritikatzeko (Scott, 1990, 42); (Aresti, 2006, 226-227).

Kritika hori abiapuntutzat hartuz, Scottek bere ekarpen propioarekin jarraitu zuen, *genero* kategoria definituz. Era sinple batean esanda, definizioaren muina bi proposizioen arteko lotura integralean oinarritzen da: alde batetik, generoa sexuen arteko desberdintasunetan oinarritutako gizarte-harremanen elementu bat da, eta bestetik, generoa oso barneratua ditugun botere-harreman adierazgarrien oinarritzko modu bat da. Bigarren proposizio horretan garatzen da generoaren teorizazioa, nolabait esateko. Scotten aburuz, generoa botere-erlazio garrantzitsuen forma primarioa da; beste era batera esanda, generoa da boterea artikulatzeko erabiltzen den lehengo elementua, bera baita gizarte-bizitza osoaren pertzepzioa eta antolaketa zehatza nahiz sinbolikoa egituratzen duena. Beraz, generoak garrantzia azpimarragarria duela ikus daiteke, izan ere, boterea da guztia antolatzen duena, eta generoa boterearen sorreran eta eraikuntzan inplikatzan denez, botere guztia genero-harreman batean egituratuta dagoela esan baitaiteke (Scott, 1990, 46;48).

Baina bere ekarpena ez zen horretara mugatu. Esan bezala, mugimendu feministak ezkerrekin izandako harremanak erabat baldintzatu zuen bere ekarpena, izan ere, emakume izanagatik langile klasearen barnean pairatzen zuen zapalkuntza ikustaraztea izan baitzuen helburu. Aurrez aipatu bezala, testuinguru horretan, ezkerren eta feminismoaren arteko banaketa nahiko markatua zen. Emakumeek zapalduta jarraitzen zuten ezkerren marko politikoaren baitan, eta hori onartezina zela kritikatzera ausartu ziren zenbait feminista, Joan Scott horien artean. Hori horrela, genero-kategoriari buruzko gogoetak egiten ari zela, historialari nahiz feministen artean eztabaida handia sortu zuten testu batzuk idatzi zituen. Horren adibide da Thompsonen *Ingalaterrako langile klasearen sorrera* liburuaren kritika. *Women and the Making of the English Working Class* eta *Experience* artikuluetan adibidez, Scottek klase-kontzeptuaren baitan generoaren esanahia aztertu zuen zehazki. Artikulu horietan, langile-mugimendua gizonaren kategoria unibertsalarekin identifikatzearen ondorioz Thompsonen lanak langile-klasea identitate maskulinoarekin behin betiko identifikatuta gera zedin lagundu zuela nabarmendu zuen. *Ingalaterrako langile klasearen sorrera* liburuan, ugalketa eta

etxeko lanak emakumeei lotuta ageri ziren; eta hori gutxi balitz, emakumeak klase-kontzientzia garatzeko edo langile-identitate kolektiboaren eraikuntzarekin bat egiteko gai izango ez balira bezala irudikatzen ditu. Hala ere, Scottek berak onartu zuen Thompsonnek langile klasea gizonezkoekin identifikatu izanak eragin zuela neurri batean emakumeen inguruko hausnarketaren hasiera, funtsezkoa izan zena generoaren inguruko azterketa historikoak garatzeko (Llona, 2016,169); (Tarrés, 2019, 23).

Scotten aburuz, Thompsonen lana historialariok historiaren eraikuntzan jokatzeko dugun paper aktiboaren adibide da. Argi dago Thompsonnek idatzirikoa ez zela gizarteko errealitatearen irudikapen edo deskribapen hutsa, ez zen objektiboa nolabait esateko; beraz, historiaren eta ezagutzaren eraikuntzan, esanahien eta identitateen sortzaile gisa esaterako, parte-hartze aktiboa izan zuen. Thompsoni egindako kritikak beraz, historia idatziak identitate kolektiboen sorreran duen zeregina ulertzen eta, iragana klase-gatazka soil gisa ikusi beharrean sexuen arteko gatazka gisa ikusten ere lagundu du (Llona, 2016, 170).

Hori da ziurrenik Scotten proposamenen ondorio emankorrenetako bat Arestiren arabera, iragana aztertzeke erabiltzen ditugun kontzeptuekiko jarrera kritikoa izatearen beharraz ohartaraztea, hain zuzen ere. Generoaren Historian esaterako, a-historikotzat hartuak izan diren kontzeptuak, “sexu-desberdintasuna”, “gizona” edo “emakumea” bezalakoak, aztertu eta zalantzan jartzearen beharra azpimarratzen du behin eta berriz. Kontzeptu horiek ikerketa batean premisatzat hartzea akats larria da, gizon eta emakumeen arteko botere-harremana historian zehar berdin mantendu dela pentsatzea ez baita zuzena inondik inora ere (Aresti, 2006, 229).

Ikusi bezala, Scottek gai ugari izan zituen buruan, Michel Foucault, Bakhtin, Gramsci, Derrida eta Irigarayren posestrukturalismo frantsesaren eta Britainia Handiko kultura-azterketen eragin ezkutaezinezarekin, 1986. urteko saiakera idatzi zuenean (Scott, 2011, 97); (Bacci, 2014, 99).

Laburbilduz, esan daiteke “generoa” gizonen eta emakumeen arteko harremanak ulertzeke tresna egokia izan daitekeela, baldin eta termino guzti horiek zalantzan jarri

eta historizatzen badira. Maiztasun handiz egiten dugun akats hori konpondu ezean ordea, benetako historia ezagutzetik urrun geratuko gara. Argi izan behar dugu beraz, iraganeko gizarteak aztertzeko orainaldiari buruz dakizkigun zenbait aspektu desikasi behar ditugula lehenengo, historia deseraikitzea baita historia berreraikitze bidea.

BERRIKUSPENA

Urte batzuk beranduago, 2011n zehazki, Joan Scottek historiografian oso eraginkorra izan den genero kategoriaren inguruan aurrez idatzitako artikulu baten berrikuspena egin zuen, *Generoa: oraindik azterketa historikorako kategoria erabilgarria?* deiturikoa. Artikulu horretan, 1986. urtean egindako ekarpenari eman zaion erabileraren ondoren, generoak azterketa historikorako kategoria erabilgarria izaten jarraitzen duen edo ez jarri zuen zalantzan.

Gogoratu, hasiera batean, sexuaren eta generoaren artean bereizketa bat egiten zela, lehenengoa biologiar loturikoa baitzen eta bigarrena berriz, kulturalki sortua. Bereizketa horrek ordea, kritika ezberdinak jaso zituen Judith Butler edo Donna Harawayren eskutik besteak beste, zeinak bereizketa faltsua zela zioten. Hauen iritziz, generoa kulturalki eraiki bazitekeen, gauza bera egin zitekeen sexuaren esanahi biologikoekin. Dena den, aipatu bezala, generoaren eta sexuaren arteko lerroak ezabatu egin ziren herri-erabileratik, teorilari hauen idatzien ondorio izan edo ez (Scott, 2011, 95-96); (Butler, 2014).

90eko hamarkadaren erdialderako, Estatu Batuetan behinik behin, genero hitzak, oraindik lexiko feministaren termino gisa hartu zitekeenak, kritikotasuna galdu zuela zirudien. Aurrez aipatu bezala, “genero” kontzeptua sexuen arteko desberdintasunaren sinonimo bihurtu zen, baita “emakume” hitzaren sinonimo ere. Erabilera arruntean, jende askorentzat, generoa sexu biologikoarekin zerikusia duen edozer aipatzeko modu bihurtu da; sexua, berriz, ekintza fisikora mugatu delarik ia. Baina badira generoak ondorio erradikalak izan ditzakeela, eta erabiltzeari utzi behar zaiola diotenak ere (Scott, 2011, 97-98).

Terminoak bera aztertuz gero, gai analitiko ugari irekitzen zituela eta ikerketa ezparrua zabaltzen zuela ikusi daiteke: sexu bakoitzerako rolak eta funtzioak nola eta zein baldintzatan definitu ziren; nola aldatzen ziren “gizon” eta “emakume” kategorien esanahiak testuinguruaren nahiz lekuaren arabera; nola sortu eta ezarri ziren sexu-portaeraren arau erregulatuak; nola laguntzen zuten boterearekin eta eskubideekin zerikusia zuten gaiek maskulinitasunaren eta identitate-feminitatearen definizioetan; nola eragiten zuten estruktura sinboloek pertsonen eguneroko bizitzetan; nola sortzen ziren sexu-identitateak gizarte-aginduen barruan eta haien kontra (Scott, 2011, 97).

Esan bezala, Scottek bere ekarpenaren inguruan egindako berrikuspenean, generoak analisirako kategoria erabilgarria izaten jarraitzen duen ala ez egin zuen gogoeta. Galdera horren erantzuna, ez da hitzaren beraren arabera historia honen iritziz, hitzaz egiten dugun erabilera kritikoaren arabera baizik, aurrerago azalduko dudan moduan. «Maizegi, *genero* terminoak ikuspegi programatiko edo metodologiko bat adierazten du», non *gizon* edo *emakume* hitzen esanahiak finkotzat hartzen diren. Helburua rol desberdinak zalantzan jarri beharrean deskribatzea dela dirudi, eta hori akats larri bat da. Ikuspegi horretatik harago badoa soilik da generoa baliagarria; gorputz sexuatuaren esanahiak nola sortzen diren, eta esanahi horiek nola zabaltzen eta aldatzen diren kritikoki pentsatzeko gonbit gisa hartzen badira soilik. Hogeita bost urte lehenago esan zuen bezala, enfasia emakumeei eta gizonei esleitutako roletan jarri beharrean, sexu-desberdintasunaren eraikuntzan jarri behar da. Beraz, sexuei lotutako esanahiak nola eta zein testuingurutan ezartzen diren zalantzan jartzea baimentzen badigu generoak kategoria analitiko erabilgarri bat izaten jarraitzen du, kritikoa baita (Scott, 2011, 95; 98).

Ikus dezagun aipaturiko hori praktikan nola gauzatzen den. Historiaren alorrean esaterako, liburu gehienek “emakume” hitzaren esanahia emana dagoela onartzen dute oraindik, emakumeek fisikoki komunean dutena “emakume” izendatutako erakunde kolektiboaren sinonimoa delarik. Generoak berriz, emakumeen eta gizonen arteko harremanaren adierazle izaten jarraitzen du, harreman “hierarkiko eta aldaezin” baten adierazle, eta sexualitateari buruzko ikerketa berritzaile ugari egin diren arren, generoak

—diskurtso historikoan behintzat—, maiz, emakume/gizon oposizio bati erreferentzia egiten jarraitzen du, beraz, bada oraindik zer aldatu (Scott, 2011, 98).

Scotten aburuz, paradoxikoki, Emakumeen Historiak historiatik kanpo mantendu ditu “emakumeak”. Bestela esateko, sexua/generoa dikotomiak bere horretan jarraitzen du, oposizio hori deseraikitzeke lan akademikoa egin arren. Esan bezala, deseraikuntzak nabarmendu zuen sexua, generoa bezala, eraikuntza baten ondorio gisa ulertu behar zela; sexua eta generoa ez zirela naturaren ondorio, kulturaren ondorio baizik. Azkenean, feministek zalantzan jarri nahi izan duten oinarri biologiko batean oinarrituta dago egun ezagutzen dugun historia, eta hain ditugunez barneratuta premisok, kosta egiten da errotik aldatzea; hala ere, biologiaren eragin hori hankaz gora jartzeko deia egiten du Scottek nortasun sexuatuaren alderdi guztiak auzitan jarritz (Scott, 2011, 98; 100).

Azkenik, garrantzitsua iruditu zait azpimarratzea Scotten esanetan generoak sortzen dituela sexurako esanahiak eta sexu-desberdintasuna, eta ez sexuak generoarenak. Azken finean, bere ustez, guztia da kulturala, eta beraz, zakila izateak esaterako, ez zaitu gizon egiten. Hori horrela izanik, feminista batzuek aspaldi esan bezala, generoa funtsezkoa da sexuarentzat. Kasu horretan ere, generoa kategoria erabilgarria da, sexua eta sexu-desberdintasuna ulertzeko moduak historizatzerara behartzen gaituen neurrian kritikoa baita (Scott, 2011, 100).

Bere ekarpenari egindako berrikuspen honen bitartez, Joan Scottek autokritika garrantzitsu bat burutu zuela ikusi daiteke. Kritika horretan, feminista asko historialariek egindako akats berberetan erori zirela azpimarratu zuen: “emakume” edo “gizon” bezalako kategoriak (nahikoa) ez historizatzea. Ez da beti berdina izan emakume edo gizon izatea, ezta bien arteko botere- eta zapalkuntza patriarkal-harreman hori ere; denbora eta espazioaren arabera aldatuz joan dira, eta historialari nahiz feminista gisa ezinbestekoa da horretaz jabetzea.

ESPAINIAN IZANDAKO ERAGINA

Scotten ekarpenaren garrantzia ikusita, ez da harritzekoa herrialde ezberdinetako mugimendu feministetan izan duen eragin politiko nabaria, izan ere, ekarpen teorikoa egiteaz gain, eztabaida berriak sortzeko eta eguneroko praktika politikoari buruzko hausnarketa ezberdinak bultzatzeko gai izan baita. Eragin hori oso ezberdina izan da herrialdearen ezaugarrien eta bertako mentalitatearen arabera, jakina. Ideia horien eraginaz era orokor batean hitz egitea ezinezkoa denez ordea, ekarpen hori Espainian nola jaso zen eta zer eragin izan zuen aztertuko dut.

Era orokor batean esanda, Scotten eta literatura angloamerikarraren eragina oro har, giro linguistiko edo “historia kultural berria” deitu izan zaionari loturikoa, berantiarra, partziala, eta oso desberdina izan da Espainiako historiografia feministan; ebaluatzeko oso zaila beraz.

Scotten ekarpenak izandako garrantzia azaldu aurretik ordea, komenigarria da Espainiako Emakumeen Historiaren egoera edo testuingurua ezagutzea. 70eko hamarkadaren erdialdean, Espainian, beste leku askotan bezala, Emakumearen Historia historia sozialetik abiatuta garatu zen hasiera batean, eta Emakumeen Historia berriaren ikuspegiak gehitu zitzaizkion urte batzuk beranduago. XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan idatzitako Espainiako historia garaikidea, interpretazio-esparru marxista baten barruan edo modernizazioaren teoriatik hurbil, Francoren erregimenak eragindako ezkortasun intelektualean murgilduta zegoen. Kasu horretan, lehen ikerketa feministak —batik bat borroka antifrankistarekin lotuta sortu zirenak eta trantsizio demokratikoaren garaian— emakumeen presentzia antolatutako langile-mugimenduan ikustarazi eta problematizatzea, eta feminismo sufragistaren jatorriak Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean aztertzea zuten helburu (Burguera, 2006, 181).

Kontuan izan beharra dago hamarkada horren hasieran hasi zirela “emakumearen historia berria” delakoari buruzko eztabaida iparramerikarrak, teoria feministaren eta

gizarte-historiaren arteko elkarriketatik sortu zirenak. Aipatu bezala, “Emakumearen historia berriak” historia sozialaren interes-eremua zabaltzea ekarri zuen, emakumeen esperientzia-esparruak, eremu pribatuak (etxea eta familia kasu), oro har tradizioz baztertua izan dena gizonezkoen produkzioaren eta politikaren eremu publikoaren aurrean, garrantzia hartu zuelarik.

Testuinguru horretan, ez da harrizkoa Scotten lana eta haren genero-kategoriaren teorizazioa modu desorekatuan eta problematikoan jaso izana 90eko hamarkadako Espainian, aipatu bezala, Historia akademia oso atzeratua baitzegoen eta berrikuntzak barneratzea ez baitzen erraza. Hori horrela izanik ere, 1990. urtean Scotten “Generoa: kategoria erabilgarria analisi historikorako” artikulua itzuli zenetik erreferente bihurtu zen, diziplinaren barruan hausnarketa sakona eragin zuelarik. Hala ere, hamarkada horretan zehar lortutako emaitza partziala izan zen, giro linguistikoari buruzko eztabaida horiek hausnarketa teoriko egokirik gabe jaso baitziren hasieran. XXI. mendearen hasieratik aurrerako argitalpenetan ordea, emakumeen historialari espainiarren eta korrante feminista iparramerikarren arteko harremana hobetu zela antzematen daiteke, haien eragina nabarmen handitu zelarik (Burguera, 2006, 186;187; 189).

Emakumeen lana funtsezko ikerketa-arlo bihurtu zen 80ko eta 90eko hamarkadaren hasierarako, Scottek beste zenbait feministarekin batera egindako ekarpen garrantzitsuenetariko batzuei lotuta. Horren adibide dira Scottek Louise Tillyrekin batera lanari, familiari eta emakumei buruz idatziriko artikulua, 1984an gaztelaniaz argitaratutakoa, izen bereko liburua, eta Scottek XIX. mendeko emakumeen lanari buruz idatziriko kapituluaren itzulpena, Michelle Perroten eta George Dubyren *Emakumeen Historia* lan garrantzitsuan argitaratua. Testu horiek ordura arte pentsaezina zen espazio publikoaren (produkzioa) eta pribatuaren (erreprodukzioa) dikotomia hausten ahalegindu ziren. Horrez gain, esan daiteke 70eko eta 80ko hamarkadetako “Emakumeen Historiatik” 90eko hamarkadako “Generoaren Historiara” igarotzeko trantsizioan eragin handia izan zutela. Bereziki filosofia eta teoria feministatik sortutako generoari buruzko hausnarketei buruz hitz egitean, orain arteko autoreez gain Roger Chartier, Georges Duby eta Philippe Ariés aipatu gabe utzi ezin ditugun moduan,

Espainiako kasuan Temma Kaplan eta Mary Nashek izan zuten eragin izugarria (Burguera, 2006, 186; 190; 194).

Espainian beraz, XIX. mendean zehar emakumeen lanari esleitutako hizkuntzarekiko eta termino ezberdinen esanahiekiko gero eta interes handiagoa hasi zen pizten, kategoria horiek aztertzea ezinbestekoa bihurtzeraino. Era horretan, aurrez aipatu bezala, ordura arte a-historikotzat hartuak izan ziren kategoriak, “emakume” kategoria bera kasu, zalantzan jartzen hasi ziren. Horrez gain, “emakume” hitzaren dekonstrukzio analitikoa egin eta XIX. mendeko gizarte- eta diskurtso-testuinguru batzuk berreraiki ziren generoak nola jardun zuen ulertzeko helburuarekin (Burguera, 2006, 196).

Giro linguistiko horri lotuta, badira zalantzan jarri beharko genituzkeen termino gehiago ere, lana da horren adibide. Garai horretan, Scottek bestelako ikerketa interesgarri batzuk burutu zituen emakumeen lanaren inguruan, Espainian eragina izan zutenak. Ikerturikoaren arabera, Espainian, Europako gainerako herrialdeetan bezala, industrializazio partzial eta sektorizatu baten testuinguruan, “emakume langilea” “industria-iraultzaren emaitza” izan zen. XIX. mendeko 40 eta 50eko hamarkadetako hiri-kulturen barrutik, industria-mekanizazio mugatu baina gero eta ikusgarriagoko testuinguru batetik, eta emakumeen auziaren eta hirietako gizarte-problematika desberdinei buruzko eztabaiden argitan “emakume langilea” definitzen joan ziren. Onarpen arazoak sortu zituen arren, gero eta emakume gehiago sartu ziren lan-merkatuan, eta emakumeen lanaren esanahia aldatuz joan zen. Scottek errealitate sozial nahiz ekonomikoaren eta diskurtsoen arteko kausazko harremana zalantzan jarri eta lanaren esanahien aldaketa ulertzen lagundu zuen horrela, sexu-desberdintasunaren pertzepzio historikoari dagokionez (Burguera, 2006, 196-197).

Guzti hau ikusi ondoren, esan daiteke genero-ikasketek garapen eskasa izan zuten beste herrialde askotan bezala, Espainian ere Scotten ekarpenak eragin handia izan zuela, bai teorizazio mailan eta baita barne-hausnarketaren alorrean ere. Horrez gain, determinismo biologikoari aurre egiten lagundu eta Emakumeen Historiaren mugak azpimarratu zituen, Generoaren Historiaren mesedetan. Hala ere, maila praktikoan, hausnarketa feministak erronka ugari izaten jarraitzen ditu oraindik, izan ere, ez baita

Espainia Garaikideari buruzko ikerketa historikoaren zatirik handienean eta ondoren sortutako eztabaidetan Emakumeen Historiatik edo Generoaren Historiatik egindako ekarpena txertatzen asmatu. Dena dela, ezin dugu ahaztu Scotten artikulua gaztelaniara itzuli zutenetik 15 urtera, ingelesez lehen aldiz argitaratu zenetik 20 urtera, Espainiako historia feminista “historia berridazteko” beharrari erantzuten hasi zela, kategoria analitiko tradizionalen eta ordura arteko ezagutza historikoaren eta beraz emakumeen historia baztertzen duen historiografia baten oinarri epistemologikoak zalantzaz jarriaz. Beraz, laburbilduz, esan daiteke, Scotten ekarpenak bere mugak izan zituela Espainia mailan, normala dena garaiko testuinguru atzerakoi eta tradizionalista kontuan izanik, baina hala eta guztiz ere, berebiziko eragina izan zuela Espainiako historia feministaren barne hausnarketa prozesuan bereziki (Burguera, 2006, 197).

ONDORIOAK

Orain arte ikusi ahal izan dugun moduan, ukaezina da Scotten ekarpenaren garrantzia eta bikaintasuna, auto-hausnarketa nahiz eraldaketa sakonak eragin dituelarik bai feminismoaren, bai Generoaren, eta beraz, Emakumeen Historiaren, eta baita Historiako disziplina osoaren baitan ere (Tarrés, 2019, 17).

Emakume honek ordura arteko Historia ikusteko eta idazteko modua, nahiz horretarako erabiliriko metodologia tradizionala zalantzan jartzea, eta neurri batean aldatzea lortu zuen. Horrela, beste behin ere historia feminista bere azterketa-eremua gainditzen duten aldaketa teoriko eta metodologikoen abangoardian jarriz (Aresti, 2006, 226). Baina ez hori bakarrik, esan daiteke hizkuntzarekiko jarrera kritikoa XX. mendean zehar garatu zen arren, 60ko eta 70eko hamarkadetan zehar mendebaldeko pentsamenduaren oinarriak zalantzan jartzea lortu zuela (Tarrés, 2019, 21).

Beste alde batetik, emakumeak behingoz sujetu zapaldu izateari utzi eta marjinetatik historiaren erdigunera eramateko saiakera txalogarri hark, zeinak subjektu maskulinoaren deszentralizazioa ekarri zuen, marjinetan zeuden beste subjektu batzuk formulatzeko eta eratzeko bide berri bat ireki zuen, Historia ofizialetik baztertuak izan

diren beste eragile batzuen eredu bihurtu zelarik horrela. Beraz, esan dezakegu, emakumeei ahotsa emate hori lagungarria izan zela gizarteko gainerako talde zapalduentzat. Horrela hasi zen forma hartzen gaur egun ezagutzen dugun markoa.

Guzti hau ikusita, beste behin ere Scotten haunditasuna azpimarratu beharra dagoela uste dut, izan ere, benetako historia ezagutu eta eraikitzeke pauso txiki ugari ematera bultzatu zuen gizartea. Azken finean ezagutu ahal daiteke “benetako” historia talde ezberdinak eta haien arteko harremanak aztertu gabe? Erantzuna argi dago, nire ustez: talde menderatzaileak gizarte osoa kontuan hartu gabe idatziriko kontakizunari ezin zaio historia deitu, ez baitago inondik inora ere osatuta (Llona, 2016, 172).

Argi dago beraz, genero-ikuspegia alde batera uzteak iraganaren azterketa osatugabe uztea zekarrela, eta botere-harremanek zeharkatutako gizarte batean bizitzeak zer esan nahi zuen ez ulertzea; emakumeak botere-harreman horietan zapalduak zirelarik, jakina. Oro har, diziplina historikoaren genero-kontraesanekiko sentsibiltate falta horrek historialari askori emakumeen iragana, nahiz denboran zehar sexuen artean ezartzen diren botere-harremanen konplexutasuna eta aldakortasuna ulertzen lagundu zien (Llona, 2016, 165).

Asko izan ziren (eta dira) Scotten proposamen berri hauetan aurrerapauso handia ikusi zutenak (eta ikusten jarraitzen dutenak) disziplina osorako, Generoaren Historiarako bereziki. Baina planteamendu kritiko eta berritzaile ororekin gertatu ohi den bezala, haren inguruan sorturiko erresistentziak ere ugariak izan ziren. Dena dela, erabateko onarpena lortu ez arren, proposamen haren erabilgarritasuna ez dago zalantzan jartzetik, paralisi teoriko eta interpretatiboaren efektua sortu ordez, egungo kultura-historia feministaren barruan bizirik jarraitzen duten eztabaidak (Emakumeen Historiaren eta Genero Historiaren arteko bereizketa, besteak beste) eragin baitzituen (Burguera, 2006, 188).

Hala ere, Scottek izandako eragina partziala izan dela esan daiteke. Egia da, maila teoriko batean Historia feminista emakume esanguratsuek egindako ekarpen nahiz lan handien kontaketa baino gehiago dela azaltzea lortu zuela. Maila praktikoan ordea, ez

da nahikoa izan Emakumeen Historia idazten dutenek emakumeek historia bat dutela edo mendebaldeko zibilizazioaren mugimendu politiko garrantzitsuenetan parte hartu dutela frogatzea. Historialari ez-feminista gehienek erantzuna aintzatespena izan da lenetik, eta bazterketa edo gaitzespena ondoren. Ugariak ziren "emakumeek gizonak ez bezalako historia izan dute, apartekoa, bestelakoa; beraz, utz diezaiegun feministei emakumeen historia egiten, guk gurea egiten jarraituko dugu" edo "emakumeen historiak sexuarekin eta familiarekin zerikusia du eta Historia politiko nahiz ekonomikotik at egin beharko litzateke" bezalako pentsaera zutenak. Baina harrigarriagoa dena da emakumeen partetik jasotako erantzuna ere ez zela askoz hobea izan, kasurik onenean erantzuna interes txikikoa izan delarik ("Nire Frantziako iraultzarekiko pertzepzioa ez da aldatzen emakumeek bertan parte hartu zutela jakin dudanetik") (Scott, 1990, 27); (Scott, 2008, 47).

Scotten ekarpenak izandako eragina partziala izan zen arren, ideia haien garrantzia zenbaterainokoa izan zen azpimarratu nahi nuke. Geoff Eleyk Britainia Handiko eta Ipar Amerikako kultura-historia berriaren ekarpenak baloratzean adierazi zuen bezala, generoa kategoria erabilgarri izatetik "beharrezko" izatera igaro zen, gizartean gertatzen diren aldaketak ulertzeko, besteak beste (Burguera, 2006, 185).

Nire ustez, historialari bezala jakin beharreko gauza garrantzitsua zera da: ez dela kasualitatea historiaz ezagutzen duguna. Historia ez da iraganean gertaturikoaren deskribapena, eraikuntza bat baizik. Historia ez da objetiboa inondik inora ere, historialariak helburu jakin batzuekin eta ideologia jakin batetik abiatuta idazten baitu. Aurrez aipatu bezala, argi izan behar dugu iraganeko gizarteak aztertzeke orainaldiari buruz dakizkigun zenbait aspektu desikasi behar ditugula lehenengo, dakigun hori ez baita objetiboa, eraikia baita. Eta objetiboak ez diren premisak egia absolututzat hartzen baditugu errealitatea ezagutzetik oso urrun geratuko gara. Hori da ziurrenik Scottekin ikasi dudak gauzarik esanguratsuenetariko bat: historia berreraikitzeke bide bakarra lehenik eta behin historia deseraikitzea dela.

Amaitzeko, esan beharra daukat Scotten ekarpena bikaina iruditu zaidala, nire historiarekiko pertzepzioa aldatu baitu erabat. Giro linguistikoaren testuinguru horretan

egindako ekarpena, a-historikotzat hartuak izan diren termino horiek historizatzearen beharra, garaiko testuinguruari eta marxismo ortodoxoari bereziki egindako kritika, zapalduak historian erdigunera eramatea, Genero Historiak Emakumeen Historia ordezkatu izana... Ez da harritzekoa mundu mailako mugimendu feministetan izandako eragina, eta nazioarteko historiografian erreferente bihurtu izana.

Hala ere, bada ulergaitza egiten zaidan zerbait. Nola da posible historialari honen ekarpena erlatiboki izatea ezaguna soilik? Nola historialari belaunaldi oso batek hain ekarpen garrantzitsua egin eta historia ofizialaren, edo mendebaldeko pentsaeraren beraren oinarriak zalantzan jarri dituen emakume baten berri inoiz entzun ez izana? Galdera horien erantzuna garbia da nire ustez: Scott emakumea da. Ziur nago gizonezkoa izango balitz testu-liburu ugaritan agertuko litzatekeela, unibertsitatean Historia Garaikideko irakasgaiari aipatu gabe utzi ezin daitezkeen pertsona horietako bat izango litzatekeela. Baina ez da hala.

Argi dago beraz, Scottek hiru hamarkada baino gehiagoren ostean, oraindik ez duela bere jarraitzaileok nahi adinako arrakasta lortu emakumea historiaren erdigunera eramateko ahaleginean. Belaunaldi berrioi dagokigu beraz aldaketaren parte izatea.

Horixe da gaur egungo erronka: historia feminista garatzeko baldintzak bultzatzea, eta aldi berean, gaur egungo eztabaida historiografikoak gure lanetan txertatzeko gai izatea. Horretarako, Joan Scotten lana tresna oso erabilgarri eta inspiragarria izando da, inolako zalantzarik gabe.

BIBLIOGRAFIA

- Aresti Esteban, Nerea. “La categoría de género en la obra de Joan Scott”. *Joan Scott y las políticas de la historian*, koor. Cristina Borderías Mondejar, 223-232. Bartzelona: Icaria editorial s.a., 2006.
- Burguera López, Mónica. “La influencia de Joan Scott en la historia contemporánea de España: historia social, género y giro lingüístico”. *Joan Scott y las políticas de la historian*, koor. Cristina Borderías Mondejar, 179-211. Bartzelona: Icaria editorial s.a., 2006.
- Bacci, Claudia. “Historia, feminismo y política: una entrevista con Joan Wallach Scott”. *Rey desnudo, revista de libros*, 4 zkia, (2014 udazkena): 99-112.
- Beauvoir, Simone de. *La fuerza de las cosas*. Bartzelona: Edhasa, 1982.
- Butler, Judith. “Hablando claro, contestando. El feminismo crítico de Joan Scott”. *Rey desnudo, revista de libros*, 4 zkia, (2014 udazkena): 31-52.
- Llona González, Miren. “V.E.P. Thompson, la formación de la clase obrera en Inglaterra, el feminismo y la historia de género”. *E.P. Thompson, marxismo e historia socialen*, koor. Julián Sanz Hoya, Jose Babiano Mora eta Francisco Erice Sebares, 153-176. Madril: Siglo XXI de España, 2016.
- Mitchell, Juliet. *La condición de la mujer*. Bartzelona: Anagrama, 1977.
- Nash, Mary. “Nuevas dimensiones en la historia de la mujer”. *Presencia y protagonismo. Aspectos de la historia de la mujerren*, ed. Mary Nash, 9-50. Bartzelona: Ediciones del Serbal, 1984.

- Scott, Joan Wallach. “El género: una categoría útil para el análisis histórico”. *Historia y género: Las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, ed. James S. Amelang eta Mary Nash, 23-58. Valentzia: Institució Alfons el Magnànim, 1990.
- Scott, Joan Wallach. “Género: ¿Todavía una categoría útil para el análisis?”. *La manzana de la discordia*, 6. bol., 1 zkia (2011): 95-101.
- Scott, Joan Wallach. *Género e Historia*. Mexiko Hiria: Fondo de cultura económica, Universidad Autónoma de la Ciudad de México, 2008.
- Tarrés Barraza, Maria Luisa. “A propósito de la categoría género: leer a Joan Scott”. *Mujeres y Política en Chile: siglos XIX y XXn*, ed. Rolando Alvarez, Ana Gálvez eta Manuel Loyola, 17 - 42. Santiago de Chile: Ariadna ediciones, 2019.
- Tudela Sancho, Antonio. “Historia de las mujeres, género y crítica. Algunas notas marginales a (partir de) Joan W. Scott”. *V Congreso Virtual sobre Historia de las Mujeres en aurkeztutakoa*, 2013ko Urriaren 15-31.

<file:///D:/Usuario/Downloads/Dialnet-HistoriaDeLasMujeresGeneroYCriticaAlgunasNotasMarg-4767380.pdf>

- Veronelli, Agustina. “Comentario bibliográfico. Scott, Joan Wallach: Género e Historia, México, Fondo de Cultura Económica, 2008”. *Rey desnudo, revista de libros*, 4 zkia (2014 udazkena): 69-79.